



IRAKASKUNTZARAKO BIDEOAK EBALUATZEKO ERRUBRIKA

@amaiaarroyo



Egilea(k):

Data:

Titulua:

Gaia:

Ikasgaia:

Maila:

ARLO TEKNIKOA	Hobetu egin behar duzu (1)	Ongi zoaz (2)	Lortu duzu (3)	Bikain egin duzu (4)
Iraupena	Bideoak 10 minutu baino gehiago irauten du.	Bideoak 7 minutu baino gutxiago irauten du.	Bideoak 6 minutu baino gutxiago irauten du.	Bideoak 5 minutu baino gutxiago irauten du.
Gidoiaren egokitasuna	Ez dut gidoirik prestatu.	Gidoia idatzi dut, baina ez dut bete bertan jasotakoa.	Gidoia idatzi dut eta bideoa egiteko erabili dut.	Gidoia idatzi dut eta idatzitakoa jarraitu eta hobetu dut.

ARLO DIDAKTIKOA

Azalpenen argitasuna	Kontzeptu asko azaldu ditut denbora oso laburrean.	Bizpahiru kontzeptu azaldu ditut eta poliki azaltzen saiatu naiz.	Bi kontzeptu azaldu ditut asko jota, bakoitzari denbora eskainiz.	Bi kontzeptu azaldu ditut asko jota eta hitz gakoak erabili ditut.
Teoria+praktika konbinazioa	Teoria bakarrik azaldu dut.	Teoria bakarrik azaldu dut, adibide bat jarrita.	Teoria azaldu dut eta adibide praktikoak jarri ditut laguntzeko.	Teoriak eta praktikak, biek dute protagonismo bera.

ARLO PEDAGOGIKOA

Interesa eta motibazioa	Azalpenak besterik gabe eman ditut, kontzeptu zerrenda gisa.	Azalpenak ematean, ikasleen aurrezagupenak kontuan hartzen saiatu naiz.	Azalpenak ematean, ikasleen aurrezagupenekin lotu ditut.	Azalpenak ematean, ikasleen aurrezagupenekin lotu ditut eta galderak egin ditut jakin-mina sustatzeko.
Helburua betetzea	Bideoak ez du helburua betetzen.	Bideoak halamoduz betetzen du helburua.	Bideoak helburua betetzen du.	Bideoak helburua betetzen du eta hobetzeko ekarpenak egin ditu.

ARLO ESTETIKOA

Irudien egokitasuna	Irudiak edukiei eta azalpenei erreparatu gabe aukeratu ditut.	Erabilitako eduki batzuek lotura dute edukiekin eta azalpenekin.	Erabilitako irudi guztiek lotura dute edukiekin eta azalpenekin.	Edukiekin eta azalpenekin lotura duten irudiak erabili ditut soilik eta ulermenean laguntzen dute.
Estiloaren koherentzia	Ez diot arretarik jarri bideoaren estiloari.	Bideoari titulua jari diot, baina ez dut estiloari buruz ezer pentsatu.	Bideoak estilo jakin bat du: titulua, hasiera eta bukaera garbiak.	Bideoaren estiloa garbia da eta beste bideoetan jarraitzeko modukoa, koherentzia bermatzeko.

JARRAIBIDEAK: Batu zure ebaluazioarekin bat datozen gelaxka guztien puntuazioa eta bideoaren ebaluazioaren emaitza izango duzu. Gehienezko puntuazioa 32 puntu dira.